


BEGO Alabuzan

HAURRENTZAKO
I P U I N A K

Sagutxo batzuen istorioak
gure entzule txikitxoek laguntzaz



S A G U
T X I K I
S A G U
M A I T E





BEGO Alabazan-ek

AURKEZTEN DU

Umeentzako ipuin-saioa "Sagu txiki, Sagu maite"

2-6 urte bitarteko umeentzako aho-narrazio saio honek islatzen du kontalari honek ipuin-kontalaritzan emandako 20 urteetan lortu duen sormen-heldutasuna.

Arnold Lobelen *Sagu kontuak* liburu ezagunean arnasa hartuta, honen lehen istorioak biltzen ditu saioaren beste ipuin guztiak. Ipuin guztietako protagonistak gure txikien hain gustuko diren sagutxo jator horiek dira, akaso beraien antz handia daukatelako: txikiak, goxoak eta jostalariak.

Maitasunez eta umorez, Bego Alabazanek ipuin labur eta arin hauek kontatuko dizkigu liburueta irudiez eta berak egindako eskulanez lagunduta eta baita, nola ez!, bertaratzen diren txikien parte hartzeaz.

SAIOAREN IBILBIDEA

Saio hau Bilboko Kultur Arloak antolaturiko "Ikusi eta Ikasi" egitarauaren barruan estreinatu zen 2013an nahiz eta aurretik ere bere istorioak narratzaile honen errepertorioaren parte izan. Aukeratu, batu eta eszenatokian azaltzeko aproposagoa den formatu batera moldatu zituen. Geroztik, batez ere Euskal Herrian zehar eta euskaraz taularatu izan du hainbatetan.



FITXA TEKNIKOA

Saioaren izenburua **“Sagu txiki, Sagu maite”**

Moldaketa eta narrazioa **Bego Alabazan**

Zuzendaritza **Alabazan Koop.**

Nori zuzendua **2 - 6 urte bitarteko neska-mutilentzat**

Entzule-kopurua **50 pertsonen kopurua aholkatzen da**

Saioaren iraupena **45 minutu**

Hizkuntza **euskara ala gazteleraz**

PROMOZIORAKO BIDEOA



<https://vimeo.com/64503582>



PRODUKZIO BEHARRAK

Heltzeko ordua: saioa hasi baino ordu bete lehenago

Muntaiarako denbora: ordu erdia

Desmuntaiarako denbora: ordu erdia

Aparkalekua auto baterako



ANTZEZPEN-GUNEA

- ➔ Entzute-giro oneko gela zabala eta lasaia. Baldintza hau egon ezean, beharrezkoa izango da soinu-ekipoa eta baita honetaz arduratuko den teknikaria.
- ➔ Eszenatokiaren gutxieneko espazioa: 3 x 2 metro (zabalera x sakonera).
- ➔ Saioaren ezaugarriak direla eta, aholkatzen dugu entzulegoa hurbil egotea, ahal dela aulkietan jesarrita eta erdi-borobilean jarritako ilaretan.
- ➔ Entzule txiki eta nagusientzako aulkiak.
- ➔ Entzute-giroa bermatzen duen arduraduna izan behar da saioa bitartean, hau ez baita narratzailearen ardura. besteek saioaz gozaten jarrai dezaten.



NARRATZAILEAREN AURKEZPENA

Bego Alabazanek (Begoña Gómez Abrisketa), 1996tik hona Ahozko Kontalaritzan dihardu txiki eta nagusiei ipuinak kontatzen, euskaraz eta gazteleraz ere. Berarentzat ipuinak kontatzearen oinarrizko helburua dibertitzea da; eszenatokira ateratzen denean entzuleekin jolasteko gogoz egiten du, txikiak zein handiak direla. Beti hitzez, begiradaz eta keinuez lagunduta, batzuetan arnasa eman dioten liburuak eramaten ditu edota berak egiten dituen irudi, txotxongilo eta eskulanak ere. Azken bolada honetan Itzal Txinatarren xarmaz gozatzen du, honegatik dagoeneko *Itzal Itzelak* izenburuko hiru ikuskizun dauzka martxan: saio berezi hauetan ipuinak kontatzen ditu aspaldiko teknika honen laguntzaz.

Urtero 80 bat antzezkiak gauzatzen ditu batez ere Euskal Herriko liburutegi, Kultur Etxe, antzokietan... eta baita bere baitan sartu diren istorioak entzuteko prest dauden edozein tokitan.

Gaur egun **Alabazan Aho-narrazioa Kooperatiba**ren erdia da Pedro Ruizekin batera. 2006tik hona Barakaldoko Udalarekin batera aurrera ateratzen dute **hitzBATU** egitaraua, Barakaldo eta Gurutzetako eskoletako Lehen Hezkuntzako 4. mailako neska-mutilekin ipuinak sortzen.

Honez gain, 2012tik gaur egun arte Bilboko Udalarekin batera **Istori Biziak /Cuentos EncadenaDOS** izeneko ahozkotasanari buruzko hamabostaldia programatzen dute, hiribildu honen 2. barrutian. **Galtzagorri Elkarte**aren parte da 2011tik hona. **AEDA**ko (Asociación de Profesionales de la Narración Oral en España) kidea da ere 2012tik aurrera.

HARREMANETAN JARTZEKO

Bego Alabazan Tlf. 637302007 bego@alabazan.net www.alabazan.net